

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

185/2021 Foru Agindua, uztailaren 12koa. Interes publikokotzat jotzea Lantziegoko lurzoru urbanizaezinean "Oyón-Casablanca" 103. euskarria eta "Laguardia-Elvillar" 560. euskarria lotzeko aireko linearen proiektua, i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, SAUk sustatua

i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (Iberdrola Taldea) udalaren obra lizentzia eskatu dio Lantziegoko Udalarari proiektu honetarako: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linea, "Oyón-Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 103. euskarria eta "Laguardia-Elvillar" 13,2 kV-ko aireko linearen 560. euskarria lotzekoa, Lantziego udalerritik igarotzen dena.

Lantziegoko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Proiektu teknikoan jasotzen denez, aireko linea berriaren helburua da lotzea "Oyón-Casablanca" aireko linearen 103 euskarria eta "Laguardia-Elvillar" aireko linearen 560 euskarria, ordeztzekoa, 100-AL1/17-ST1A eroalearekin (lehengo 100 A1/S1A). 13,2 kV-ko aireko linearen trazadurak Lantziegoko udal mugarteari eragiten dio, eta 4.480 metroko luzera du, hogeita hiru lerrokatuz; horietatik hamar Oiongo BTZren "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoak izango dira, eta hortik abiatuko da lotunea; gainerakoak, berriz, Guardiako BTZren "Elvillar" 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoak.

Udal arkitektoak emandako txostenak dioenez, linea landa izaerako lursail pribatu eta publikoetatik igarotzen da; lursail horiek lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daude eta "J.25 Nekazaritza eta abeltzaintza intereseko babes zona", "J.24 baso intereseko zona babestu" eta "J.17 Lurrazaleko uren babes bereziko zona" gisa kalifikatuta. Jasota dago, halaber, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren 2021eko apirilaren 9ko baimena duela proiektuak, landa bide batzuei eragiten dielako.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2021eko ekainaren 3an, Natura Ondarearen Zerbitzuak aldeko txostena eman du, zenbait baldintzarekin. Era berean, xedatzen du aurreikusitako ekintzek hegazi-faunan dituzten ondorioak ebaluatu ondoren, uste da ekintza horiek ez dutela eragin nabarmenik izango espezieetan, baldin eta txostenean jasotzen diren prebentzio eta zuzentze neurriak gordetzen badira.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sail honen egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legeagintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruaren, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jardura eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiaren ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Bigarrena. Maiatzaren 24ko 139/2021 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta hura 20 egunez jendaurrean jartzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2021eko ekainaren 4ko ALHAOn (61. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako eman zen epean.

Udalerrian indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, 1.6.1 artikuluan J1-Babes bereziko landa eremuetan eta J2-Babestuak landa eremuetan baimendu daitezkeen erabilerei dagokienez, beren izaera eta ezaugarriengatik landa ingurunean kokatu behar diren interes publikoko instalazioak jasotzen ditu.

Hirugarrena Proiektuaren interes publikoa adierazteko oinarria da Sektore Elektriakoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legea, zeinak 1. artikuluan xedatzen baitu legearen xedea dela sektore hori arautzea, energia elektriakoaren hornidura bermatzeko eta hura kontsumitzaileen beharretara egokitzeko, segurtasunari, kalitateari, eraginkortasunari, objektibotasunari, gardentasunari eta kostu minimoari dagokienez. 2.2. artikulua jasotzen duenez, energia elektriakoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzu bat da; bestalde, 7. artikulua horniduraren bermea arautzen du, eta xedatzen du kontsumitzaile guztiek eskubidea izango dutela energia elektriakoaren garraio eta banaketa sareetarako sarbidea eta konexioa izateko Espainia osoan, lege horretan bertan ezarritako baldintzetan.

5. artikuluan xedatzen da hornidura elektriokoari loturiko jardueretarako azpiegitura propioak onura publikokotzat jotzen dituela lege horrek, eta sistema orokortzat hartuko direla; eta 54. artikulua, nahitaezko desjabetzearen ondorioei dagokienez, onura publikokotzat jotzen ditu energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak, eta halakotzat hartzen ditu, orobat, arrazoi teknologikoen, ingurumen arazoien edo energia eraginkortasunaren ondoriozko ordezteak edo aldaketak.

1.2. artikulua jasotzen duenez, energia elektriakoaren hornidurarako diren jardueren artean banaketarena dago. i-DE redes Eléctricas Inteligentes SAU (Iberdrola Taldea) enpresa eskatzailea konpainia banatzailea da, eta, haren web orri ofizialean emandako informazioaren arabera, helburutzat du elektrizitatea bezeroarengana eramatea banaketa sareen bidez; horretarako, sare elektrikoaren mantentze lanez arduratzen da, sarearen plangintza eta garapena optimizatzen.

Horri dagokionez, 6.1.e) artikulua ezartzen duenez, banatzaileak merkataritza sozietateak (edo kontsumitzaileen kooperatibak) dira, eta eginkizuntzat dute energia elektrikoa banatzea eta energia kontsumo puntuetan kokatzera bideratutako banaketa instalazioak eraiki, mantendu eta erabiltzea, bai eta 40. artikuluan jasotzen diren funtzio guztiak ere. Azken manu horren 1.e) puntuan zehazten denez, banatzaileak arduratzen dira banaketa instalazioak handitzeaz, hornidura elektriakoaren eskari berriei erantzuteko beharrezkoa denean (...).

Orain arte adierazitako guztia bat dator aurkeztu den 4.331 zenbakiko proiektuaren xedearrekin. Horren ondorioz, azpiegitura landa lurretan kokatu beharra haren ezaugarrietatik dator.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikokotzat Lantziegoko udalerriko lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linearen proiektua, "Oyón-Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 103. euskarria eta "Laguardia-Elvillar" 13,2 kV-ko aireko linearen 560. euskarria lotzeko eta i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, SAU (Iberdrola taldea) enpresak sustatua, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

Bigarrena. Ebazpen honen jakinarazpenarekin batera, Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako txostenaren kopia igortzea.

Hirugarrena Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahalko zaio, egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 12a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO